



JARDUEREN BALDINTZEN ETA ORDAINKETAREN ARAUTEGIA

- Igeriketako neguko ikastaroak hiru hilabetero eskeiniko dira, urrian, urtarrilean eta martxoan. Ikastaroek 3 hiruhilabeteko iraupena izanen dute.
- Udako igeriketa ikastaroak uztailean eta abuztuan eskeiniko dira.
- Neguko denboraldiko lehorreko kirol-jarduerak momentuz erreserba bidez funtzionatuko dute. Baldintza hau aldatuz Joan daiteke Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen neurrien arabera.
- Udako lehorreko kirol-jardueretan uda osorako izena emateko aukera emanen da.
- Baztanen erroldatuek lehentasuna izanen dute jardueretan izena emateko datetan.
- Igeriketako ikastaroen kasuan, lehenengo hiru hilabetean jarduera egiten duten pertsonak lehentasuna izanen dute hurrengo hiru hilabetean jarduera berean izena emateko orduan.
- Jardueretan izena ematea pertsonala eta transferiezina da.
- Jarduera batean izena ematen den momentuan jarduera osoa kobratuko da banku-helbideratze bidez eta diru hori ez da inola ere itzuliko
- Norbaitek jarduera kobratu ondotik erreziboa itzultzen badu, zor hori kitatu arte persona hori ezingo da Giltxaurdi UKIn sartu ezta hurrengo ikastaroetan apuntatu ere.
- Ikastaroetara puntual iritsi behar da.
- Salako ikastaroetan sartzeko oinetakoak aldatu behar dira.
- Derrigorrezkoa da norberak bere eskuoihala erabiltzea.
- Estera erabiltzen den jardueretan, norberak ekarri beharko du berea.
- Behin ikastaroak akitu ondotik bakoitzak erabili duen materiala desinfektatzea eskatzen dizuegu.
- Aldageletan jende multzoak saihesteko intentzioarekin, ahal den neurrian haurrak aldageletan bakarrik sartzea gomendatzen da.
- Aldageletan jende multzoak saihesteko intentzioarekin, ikastaroa akituta aldageletan egoteko iraupena mugatua izanen da, 15 minutu izanen ditu ikasleak prestatzeko eta aldagelatik ateratzeko.
- Instalazioko langileek emanen dituzten arauak errespetatu beharko dira.